

## 23. - 28. ARTIKULUAK. Hezkuntza-erantzuna hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan

- 23. artikulua. Hezkuntza-erantzuna hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan
- 24. artikulua. Jarduketa Plan Pertsonalizatua
- 25. artikulua. Curriculum Dibertsifikazioko Programak
- 26. artikulua. Eskolatzeko osagarriko programak
- 27. artikulua. Laguntza-premia orokortuak dituzten ikasleentzako Laguntza Intentsiboko Programa
- 28. artikulua. Helduarora Igarotzeko Programak

### 23. artikulua. Hezkuntza-erantzuna hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan.

1. Eskola inklusiboaren esparruan, ikasle guztiak dira hezkuntza-arretaren subjektuak, eta, testuinguru arruntan, hezkuntzarako sarbidea bermatzeko eta hezkuntza-arrakasta bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta laguntzen onuradun izan behar dute, ekitate-baldintzetan eta aukera-berdintasuneko baldintzetan.
2. Aniztasunari erantzuteko neurriek ikasleen hezkuntza-premiei erantzun behar diete ingurune normalizatu eta inklusibo batean. Horretarako, ikasleen interesak, motibazioak eta ikasteko gaitasunak kontuan hartuko dira, eta Oinarrizko Hezkuntzaren eta dagokion titulazioaren helburuak lortzeko bidea izan behar dute.
3. Aniztasunari erantzuteko neurriak dira ikasteko eta parte hartzeko oztopoak gainditzera zuzentzen diren hezkuntza-jarduketa guztiak. Eskolak ikasleen aniztasunari erantzun diezaion profesionalak erabiltzen duten testuinguruko edozein elementu (pertsonala, antolaketakoa, materiala edo metodologikoa) jotzen da laguntzat.
4. Hezkuntza-premiak goiz atzematea oinarrizko jarduketa-printzipio bat da, eskolatzearen hasieratik eta Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzan zehar. Irakasle eta hezitzaile guztiak aktiboki parte hartu beharko dute inklusiorako oztopoak goiz atzematen. Hezkuntzaren arloko sail eskudunak onartutako programak eta protokoloak aginduzkoak izango dira, eta funts publikoekin sostengatzen diren ikastetxe guztietan aplikatu beharko dira.
5. Ikastetxeei dagokie Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren ikuspegian oinarritutako bizikidetza- eta ikaskuntza-ingurune seguruak sortzea eta etapen eta prestakuntza-ibilbideen arteko trantsizioak eraginkortasunez ziurtatzea ere.

## 22. artikulua. Curriculum Dibertsifikazioko Programak.

1. Curriculum Dibertsifikazioko Programak aniztasunari erantzuteko neurri bat dira, eta ikasle hauei zuzentzen zaizkie: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo laugarren mailetan eskolatuta egonik, ikasteko zailtasun bereziak dituzten, ikasteko erritmo desberdinak dituzten edo ikasketarik edo ahaleginik ezari egotzi ezin zaizkion eskola-ingurunera egokitzeko erritmo desberdinak dituzten ikasleei, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzen laguntze aldera.
2. Programa horietan sartu ahal izango dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera, sartzen diren ikasle guztiek, beren ebaluazio akademikoaz eta ebaluazio psikopedagogikoaz gain –ikasleei eta haien gurasoei edo legezko tutoreei entzun ondoren egindakoa–, programan sartzeko irakasle-taldearen proposamena jasoko duen ikasturte amaierako Orientazio Departamentuaren txostena ere eduki beharko dute. Txosten horrek, gainera, helburuen lorpen-maila eta ezarritako kompetentzien eskuratzeko-maila barne hartuko ditu.
3. Curriculum Dibertsifikazioko Programek, oro har, bi ikasturteko iraunaldia dute, hirugarrenetik etapa amaitu arte. Salbuespen gisa, laugarren maila amaitzean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko moduan ez dauden ikasleak proposatu ahal izango dira, baldin eta irakasle-taldeak uste badu neurri horrek titulu hori lortzeko aukera emango diela, etaparako aurreikusitako iraupen-mugak gainditu gabe.
4. Programa horiek oro har ezarritakoaz bestelako nolabaiteko curriculum-antolaketa behar dute. Diziplina arteko eremu edo proiektuen bidez garatuko dira. Bi kasuetan, programan parte hartzen duten ikasleen taldeko eta bakarkako tutoretza-ekintza sustatuko da, eta hori Tutoretza Ekintzako Planean jasoko da.
5. Diziplina arteko proiektuen bidez antolatuz gero, programako ikasleek talde arruntetan egingo dituzte hirugarren eta laugarren mailetako jakintzagai guztiak.
6. Eremuen arabera antolatutako programa bat aukeratuz gero, ikasleek bi eremu espezifiko eta etaparako ezartzen diren eta eremuetan jasotzen ez diren hiru jakintzagai egingo dituzte (azken horiek talde arruntetan egingo dituzte oro har). Gainera, izaera praktikoko eremu bat jarri ahal izango da. Bi eremu espezifiko horiek honela osatuko dira:
  - a) Hizkuntza- eta gizarte-eremua: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza eta Geografia eta Historia jakintzagaien oinarrizko alderdiak barne hartzen ditu.
  - b) Eremu zientifiko-teknologikoa: Matematika; Biologia, Geologia; Fisika eta Kimika; eta Teknologia eta Digitalizazio jakintzagaien oinarrizko alderdiak barne hartzen ditu.
7. Curriculum Dibertsifikazioko Programa bat egiten duen ikasle orok izan beharko du Jarduketa Plan Pertsonalizatu bat.
8. Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak ezarriko du, deialdi espezifikoaren bidez, programa horiek zer baldintzatan garatu beharko diren.

### 23. artikulua. Eskolatzeko osagarriko programak.

1. Eskolatzeko Osagarriko Programak aniztasunari erantzuteko neurri eta laguntza osagarriak dira, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolatuta dauden eta gehienez 15 urte dituzten ikasleei zuzentzen zaizkie –programa hasten den urteko abenduaren 31n beteta–.
2. Programa horiek egiturazkoak izango dira, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aniztasunari erantzuteko aurreikusitako neurri guztiak agortu ondoren, baldintza pertsonalen edo eskola-historiaren ondorioz ikaskuntzarako eta partaidetzarako oztopoak dituzten ikasleak barne hartuko dituzte.
3. Hezkuntza-prozesuarekiko, ikaskideekiko, irakasleekiko eta gizarte-ingurunearekiko jarrera positiboak garatzea dute helburu; hartara, ikasleek, lehenetsunez, pertsona- eta gizarte-egokitzapenean aurrera egin ahal izango dute, eta, aldi hori bukatuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak garatzeko prozesuan sartu ahal izango dira.
4. Eskolatzeko Osagarriko Programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten eta funts publikoekin sostengatzen diren ikastetxeetan garatuko dira, edo hezkuntza-gaietan eskumena duen sailarekin arlo horretako hitzarmenak edo akordioak dituzten gizarte- eta hezkuntza-arloko erakunde eta entitateetan, egiten dituen deialdien arabera.

### 24. artikulua. Laguntza-premia orokortuak dituzten ikasleentzako Laguntza Intentsiboko Programa.

1. Programa hau egiturazkoa da, eta ezohiko baliabide espezifikoak da hezkuntza-premia berezi iraunkorrak dituzten ikasleentzat, larritasun-maila larria dutenentzat, muga funtzional garrantzitsuak dituztenentzat eta eskolatzeko erantzun espezializatua, intentsiboa eta pertsonalizatua behar duten ikasleentzat.
2. Laguntza Intentsiboko Programak 16 urtera arteko ikasleei emango die arreta. Ikasle bakoitzak Jarduketa Plan Pertsonalizatua izango du. Plan horren erreferentzia izango dira garapen pertsonalerako eta ikaskuntza funtzionalak eskuratzeko beharrezkoak diren konpetentzia eta trebetasun moldakorrak. Ikasle bakoitzaren Planean definitzen diren neurriek hezkuntza-espazio komunean ahalik eta parte-hartze handiena izatea erraztuko dute, eta ikastetxearen eta komunitatearen baliabideak kontuan hartuko dituzte, beren aurrerapen pertsonalerako eta ikaskuntzetarako laguntza nagusi gisa.

### 25. artikulua. Helduarora Igarotzeko Programak.

1. Helduarora Igarotzeko Programak desgaitasun larri bati lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei zuzentzen zaizkie, baldin eta, derrigorrezko eskolatzeko-aldia amaitu ondoren, Oinarrizko Lanbide Heziketan sartzen ez badira. Ohiko izaeraz, ikasleei gehienez ere lau ikasturtetan emango zaie arreta, 20 urte arte izan arte, oro har. Salbuespen gisa, eskolatzeko 21 urtera arte luzatzeko baimena eman ahal izango da, betiere irakasle-taldeak uste badu Helduarora Igarotzeko Plan Pertsonalizatuan ezarritako oinarrizko konpetentziak lortu ditzaketela.
2. Programa horiek Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan emango dira, Ikastetxearen Curriculum Proiektuan integratutako berriazko programazioa izango dute eta ikasle bakoitzak Jarduketa Plan Pertsonalizatua izango du. Plan horretan bilduko dira bitzita baterako sarbide egokia izateko, ingurune komunitarioan modu aktiboan sartzeko, lan-munduratzeko eta ongizate pertsonalerako beharrezkoak diren konpetentzia espezifikoak eta zeharkakoak bermatuko dituzten helburuak. Programak ikasgela ireki gisa garatuko dira, hezkuntza-komunitatean bere adineko ikasleekin sartzeko.
3. Helduarora Igarotzeko Programek, hezkuntza-erantzuna diseinatu eta gauzatzean, kontuan hartuko dituzte ingurunean dauden eta helduen bizitzarako garrantzitsuak izango diren gizarte- eta osasun-arloko zerbitzuak.
4. Helduarora Igarotzeko Programak bi motatakoak izango dira:
  - a) Zereginen Ikaskuntzarako Programak. Desgaitasun intelektual larria edo neurritzakoa duten eta konpetentzia espezifikoak eta zeharkakoak lortu ditzaketen ikasleei zuzendutako programa espezifikoak dira, eta, horiei esker, ikasle horiek enplegu babestu batean edo, laguntzarekin, ohiko lanpostu batean lan egin dezakete eta, neurritzako laguntza-mailarekin, bizimodu independentea izan dezakete komunitatean.
  - b) Autonomia Pertsonal eta Sozialerako Programak. Desgaitasun larria duten eta laguntza orokorrak beharko dituzten ikasleei zuzendutako berriazko programak dira. Laguntza orokor horien artean daude lanerako zerbitzuak, bizitegi-unitateak, eguneko zentroak eta helduaren autonomia eta ongizatea garatzeko laguntza pertsonalak.

### 26. artikulua. Oinarrizko Heziketa Zikloak.

1. Oinarrizko Heziketa Zikloak Oinarrizko Hezkuntzaren parte dira, Lehen Hezkuntzarekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarekin batera. Lanbide Heziketaren prestakuntza-eskaintza osatzen dute, Erdi-mailako eta Goi-mailako Heziketa Zikloekin batera.

2. Ziklo horiek zuzentzen zaizkie, lehenetasunez, lanbide-ikaskuntzekin bereziki motibatuta dauden eta, lanbide-munduarekin lotutako ingurune batean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako konpetentziak ikasteko eta lortzeko aukera gehien dituzten ikasleei.

3. Oinarrizko Heziketa Ziklora sartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira batera:

- Hamabost urte beteta eduki beharko dira, edo ziklora sartzen den urte naturalean bete beharko dira.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila egin izana. Salbuespenez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila egin ondoren ere sartu ahal izango da.
- Orientazio Kontseiluan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasle-taldearen gomendioa jaso izana.

4. Oinarrizko Heziketa Ziklo bateko modulu guztiak gaindituz gero, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eta eskuratutako lanbide-konpetentziak egiaztatuko dituen espezialitateko oinarrizko teknikariaren titulua lortu daitezke.

5. Oinarrizko Heziketa Zikloek irteerako konpetentzia-profilean ezarritako konpetentziak eskuratzea erraztuko dute, honako eremu hauek irakaskuntzak antolatzearen bidetik:

- a) Komunikazioaren eta gizarte-zientzien eremua. Barnean hartzen ditu Lanbide Hastapenentarako Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Gizarte Zientziak, eta Atzerriko Hizkuntza jakintzagaiei dagozkien oinarrizko alderdiak.
- b) Zientzia aplikatuen eremua. Barnean hartzen ditu Matematika Aplikatuak, eta Zientzia Aplikatuak jakintzagaiei dagozkien oinarrizko alderdiak.
- c) Lanbide-eremua. Barnean hartu behar du, gutxienez, Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren 9. artikulua (martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoa) Gaitasun Profesionalen Estandarren Katalogo Nazionaleko 1. mailako kalifikazioa lortzeko beharrezkoa den prestakuntza.

Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren 9. artikulua aipatzen duen Gaitasun Profesionalen Estandarren Katalogo Nazionaleko 1. mailako kalifikazioa lortzeko beharrezkoa den prestakuntza jaso behar du, gutxienez.

6. [IV. eranskinean](#) zehazten dira ikasleek komunikazioaren eta gizarte-zientzien eta zientzia aplikatuen eremuetan lortu behar dituzten ikaskuntzak.

### 27. artikulua. Jarduketa Plan Pertsonalizatua.

1. Jarduketa Plan Pertsonalizatua jasotzen dira ikasle jakin batek hezkuntza-proiektua garatzen den edozein testuingurutan dituen premiei erantzuteko aurreikusitako jarduketak. Ikasgelako programaziotik abiatuta gauzatuko da.

2. Ikasleek, familiek edo legezko tutoreek Jarduketa Plan Pertsonalizatuaren prestaketaren berri izan beharko dute, haren edukiaren berri, ikaslearen ebaluazioan eta kalifikazioan eragina duten erabakien berri eta, hala badagokio, planaren amaieraren berri.

3. Jarduketa Plan Pertsonalizatua prestatzeko eta planifikatzeko prozesuan, inplikaturako pertsona guztien arteko kolaborazioa sustatuko da: ikaslea, irakaslea, familia eta, hala badagokio, beste eragile batzuk.

4. Irakasle aholkulariek edo orientatzaileek, irakasle tutoreekin batera, ziurtatuko dute irakasle-taldearekin eta irakasle tutoreekin koordinatuko dela, Jarduketa Plan Pertsonalizatua duten ikasleak zikloz aldatzean edo hezkuntza-etapaz aldatzean.

5. Ikastetxeko zuzendaritzak zainduko du Jarduketa Plan Pertsonalizatua aurreikusitako moduan garatzen dela, eta inplikaturako eragileen koordinazioa ziurtatuko du.

6. Jarduketa Plan Pertsonalizatuak Hezkuntza Ikuskaritzaren esku izango dira.